

2007ko otsailaren 20ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - AGENDA 21 EKO ADUNAKO EKINTZA PLANA ONARTZEA.
2. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

Aduna, 2007ko otsailak 16.

ALKATEA

2.007KO otsailak 20

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Jabier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Antton Artola Iburguren

Miren Aburuza Alkorta

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko otsailaren hogeian, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

AGENDA 21 EKO ADUNAKO EKINTZA PLANA ONARTZEA.

Diagnostikoa aztertu ondoren, Agenda 21eko prozesuaren barruan Adunako iraunkortasunaren aldeko ekintza plana zehaztu da udalbatzan, eta aho batez onartu da "E.5.3.4. AHTaren aurka ahal

diren kontrako ekimen guztiak martxan jarri” puntua izan ezik . Halere, puntu honetan, Arantza Aburuzak, Iñaki Aristetak eta Miren Aburuzak aldeko botoa eman duten bitartean, Jabier Zabalak, Patxi Ormaetxeak eta Antton Artolak aurkako botua eman duten eta Mikel Sarasolarena boto txuria izan da. Alkatearen kalitateko botua baliaraziz plana onartua geratzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Euskal Fondoko Sahara Koordinazio Unitateak, “Sahararen Aldeko Euskal Karabana” elkartasun kanpaina abiarazteko, udal aurrekontuetako giza laguntza ekimenetara bideratutako ekarpen ekonomikoak baliarazteko eskaera luzatzen du. Udalbatzak, gaia mahaiaren gainean uzten du hurrengo Udalbatzan aztertzeko.

Alkateak esan du Euskal Fondokoekin hitz egin duela, eta kanpaina hau betea dutela, eta horren ordez 2006ko ekitalditik irekiak dituzten beste programa batean laguntzeko proposatu diola: El Salvadoreko Segundo Montes Komunitateko Ur horniketa proiektua.

Aho batez, aipatutako egitasmorako 2.382,96€tako diru-laguntza ematea erabaki da.

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.-Loatzo Udalerriren Mankomunitateari dagokion 2007ko ekitaldirako Adunako ekarpenaren %50 ren ordainketa egitea onartzen da, Kantitatea 8.817,87eurotako delarik.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogei minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.